

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Graduak

PRACTICUM I

Gida Orokorra

2020-2021 ikasturtea

Koordinatzaileak:

Haur Hezkuntzako Gradua: Lorea Azpiazu

Lehen Hezkuntzako Gradua: Leire Ugalde

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	3
2.	IRAKASGAIAREN TESTUINGURUA	4
3.	PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA	5
3.1.	PROZEDURA ADMINISTRATIBOA	5
3.2.	ARAU OROKORRAK	6
3.3.	PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA	7
3.4.	IKASLEEN IKASTETXE HAUTAKETA	7
3.5.	BALIOZKOTZEAK	8
3.6.	KASU BEREZIETARAKO IRIZPIDEAK	9
3.7.	PRACTICUMEN PARTAIDEEN EGINKIZUNAK	12
3.7.1.	Ikastetxeko koordinatzailea	12
3.7.2.	Ikastetxeko instruktorea	13
3.7.3.	Unibertsitateko Practicum leko koordinatzailea	14
3.7.4.	Unibertsitateko tutorea	15
3.7.5.	Ikasleak	16
4.	PRACTICUM IEKO PROGRAMA	17
4.1.	HELBURUAK	17
4.2.	KONPETENTZIAK	17
4.3.	IKASKUNTZA EMAITZAK	18
4.4.	GAITEGIA	20
4.5.	EBALUAZIOA	21
5.	ERANSKINAK	23
5.1.	ERANSKIN I: EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO TUTOREA (PRACTICUM I)	24
5.2.	ERANSKIN II: EBALUAZIO ORRIA. UNIBERTSITATEKO TUTOREA (PRACTICUM I)	26

1. SARRERA

Erakunde desberdinek, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearekin (HEFA) elkarlanean, ikasleak lan munduarekin harremanetan jartzeko helburuz burutzen dituzten jardueren multzoa da Practicuma. Horren bidez ikasleak hezkuntza zentroetan murgiltzen dira, horiek zuzenean ezagutzeko, ezagutza teoriko-praktikoak uztartzeko eta jarduera eremu guztietan konpetentzia profesionalak eskuratzeko xedez.

Beharrezkoa da ikasleek beren eskakizun profesionalak modu praktiko batean ezagutzeko aukera edukitzea eta hezitzaile izateak berekin dakartzan arazo pertsonal eta sozialei erantzuteko gai izatea.

Maisu-maistrei esleitzen zaien profilaren arabera, beren jarduera garatzen den testuingurua aztertzeke eta planifikatzeko gai izango diren profesionalak izan beharko dute; irakaskuntza baten ulergarritasuna eskakizun indibidualekin batera uztartzeko gai izan beharko dute eta Ikastetxearen Proiektuaren barruan talde batean txertatuta lan egiten jakin beharko dute.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Titulazioetako ikasketa planetan ageri den Practicuma, horrenbestez, aurreko ideia horiek kontuan izanik planifikatu da. Ikastetxeetan hiru egonaldi luze diseinatu dira, eta egonaldi horiek bigarren, hirugarren eta laugarren ikasturtean egingo dira; era horretan, Practicuma heziketa ibilbidean guztiz txertatuta agertuko zaigu, ikaskuntzarako adierazgarri eta kontrasterako iturri gisa.

Practicuma Haur Hezkuntzako irakaskuntzen bi zikloetan eta Lehen Hezkuntzako hiruetan burutuko da. Materia hori hiru irakasgaitan banatuko da Graduan zehar (Practicum I, Practicum II eta Practicum III).

Practicum horren arabera, ikasleek gero eta parte-hartze, murgiltze eta esku-hartze handiagoa izango dute eskola testuinguru desberdinetan eta egoera didaktikoen kudeaketan. Prozesu honetan guztian, hezkuntza jardunari buruzko hausnarketa bat egiten da, eta zentzu bat ematen die horren euskarri diren eta horien bilakaera orientatu dezaketen ezagutza teorikoei.

Hauxe da plan honen xedea: ikasten ari den etorkizuneko maisu edo maistrari eskola erakundera hurbiltzeko bide bat eskaintzea.

Irakaskuntza erreala ezagutzea, metodologia, antolamendu, testuinguru eta abarren arabera izan ditzakeen aldaerekin, era askotako aldagaiak diagnostikatzeko beharrezkoak diren lan-tresnak eta metodoak praktikan jarritz: pertsonalak, didaktikoak, sozialak, instituzionalak...

Practicuma ezin daiteke uler unibertsitateko irakaskuntzatik bereiz dagoen jarduera gisa, ikasleek, eskoletako tutoreek eta unibertsitateko tutoreek parte hartuko duten hausnarketarako eta eztabaidarako eremu irekiak eta horizontalak eskatzen dituelako. Alde horretatik, unibertsitateko irakasleen, maisu-maistren eta ikasleen arteko lankidetzaren prozesu gisa ulertzen dugu, betiere hiru kolektibo horien hezkuntza hobetzera eta garapen profesionala erdiestera bideratua. Ikuspegi horrekin prestatu da Praktika Plana eta, bertan, ezinbesteko batasun horren barruan, fase bakoitzak bere helburu berezia bete beharko du.

2. IRAKASGAIAREN TESTUINGURUA

Praktikak Haur Hezkuntzako bi zikloetan (0-3 urte 3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan (1.-2. maila, 3.-4. maila, 5.-6. maila) egingo dira. Practicuma mailakatua izanik, ikasleek bigarren, hirugarren eta laugarren ikasturtean gauzatuko dute ikasgai hori (Practicum I, Practicum II eta Practicum III); edukiek egonaldien jarraipena egingo dute eta, hauek aurrera joan ahala, konpetentzia mailak gora egingo du.

Practicumak emango dio ikasleari bere lanbidean behar dituen trebetasunak, ezagutzak, konpetentziak eta praktikak eskuratzeko aukera, baita egindako ikasketaren inguruan bakarka nahiz taldean hausnartzeko ere.

Ikasgaiari dagozkion kredituak taula honetan adierazten den moduan banatzen dira:

Taula 1. Kronograma (ikus egutegi zehatza HEFAko Practicum webgunean)

	EGONALDIA	EPEALDIA	KREDITUAK
PRACTICUM I	5 aste (30 ordu astean)	urria-azaroa	HH: 8 kr. LH: 9 kr.
PRACTICUM II	7 aste (30 ordu astean)	otsaila-apirila	HH: 12 kr. LH: 11 kr.
PRACTICUM	12 aste	azaroa-otsaila	HH: 18 kr.

Practicum I ikasgaiaren helburua ikasleek, irakasle izango diren neurrian, ikastetxe batekin lehen harremana izatea eta behaketa partehartzaile orokorra egitea da, unibertsitatean ikasitakoa erabiliz, horiek gelako aniztasunera, ikastetxera eta haren gizarte ingurunera egokituz.

Practicum IIa hirugarren ikasturteari dagokio eta honako hauek lantzen ditu, batik bat: garaian garaiko ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntza esperientziak garatzea, zikloan eta etapan esku hartzea, eta autokritika eta hausnarketa lantzea norberaren prestakuntzan eta lanbidean. Ikasleek testuinguru horietan erabili duten hasierako ezagutza praktikoari, eta beren pentsatzeko eta jarduteko modua zehazten duten baldintzei buruzko hausnarketa kritikoa egitea da helburua.

Practicum IIIa Minorrarekin eta berrikuntza proiektuetan parte hartzearekin dago lotua.

3. PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA

EHAA/2011n jasotzen den bezala, praktikak Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren arabera zuzentzen dira. Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudiak, 2019ko irailean, eta Eusko Jaurlaritzako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate ikasketen Practicumari buruzko 33/2018 Dekretuak, martxoaren 6koak, arautzen dute Practicuma.

3.1. PROZEDURA ADMINISTRATIBOA

Praktikak Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearen Practicum Dekanordetzak antolatzen eta koordinatzen ditu, beste ikastetxe batzuekin lankidetzan.

Tutoreei eta ikasleei aholkatzeko xedez, Practicum Dekanordetzak berariazko informazio dokumentuak izango ditu Practicum bakoitzerako. Bertan, ikasle eta tutoreentzako orientazio orokorrak jasoko dira; besteak beste, lortu nahi diren helburuak,

lan metodologia gomendagarrienak, garatu beharreko prestakuntza jardura eta eginkizunak, ebaluazio irizpideak, antolakuntza alderdiak, ordutegiak, jakintza arloak/inplikaturako sailak, eta praktikak modu egokian gainditzeko beharrezko informazio guztia.

Behin praktikak amaituta, Hezkuntza Sailak kasuan kasuko ziurtagiriak igorriko dizkiete ikastetxeetako tutoreei, ofizioz, 33/2018 Dekretuan ageri gisa.

Praktika hauen bidez, ez dira inoiz ikastetxeetako, erakundeetako eta enpresetako irakasleen eginkizunak beteko. Praktikak egiten dituztenek eginkizun desberdinak edota osagarriak izango dituzte.

Praktika arautuak direnez, dagokion Aseguruak estaliko ditu.

Practicuma Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduei atxikitako enborreko irakasgaia denez, Fakultateak berak antolatzen eta arautzen du. Practicum Dekanordetzaren zuzeneko arloa da, eta Akademia Antolakuntzako Batzordearen eta Practicum AzpiBatzordearen laguntzarekin jarduten du. Practicumarekin lotutako edozein gertaera konpontzeko, ikasleak Practicum Dekanordetzara eta AzpiBatzordera jo beharko du.

Unibertsitateak ezarritako ereduaren bidez tutorearen aldeko ebaluazioa lortu ondoren, ikasleak egindako kanpoko praktika akademikoen ziurtagiri bat eskatu ahal izango dio PPARI edo, hala badagokio, tituluko praktiken arduradunari. Praktiken aitortzarako, ikastegiak finkatuko du zer prozedurari jarraitu behar zaion eta, hala behar bada, zer dokumentazio eska daitekeen.

3.2. ARAU OROKORRAK

- Ikasleak Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak zehaztutako ikastetxeren batean egingo ditu praktikak.
- Praktikek iraun bitartean, ikastetxeak lanaldi osoko profesionalentzako zehaztutako ordutegia beteko dute ikasleek.
- Aipaturako alderen batekin lotutako aldaketak onartzea (ikastetxe, denboraldi edo ordutegi aldaketak) Magisteritza Arloko Practicum AzpiBatzordeari dagokio. Beraz, ikasleek aipatu AzpiBatzordeari egin beharko dizkiete eskari guztiak, betiere,

HEFAn Kasu Bereziatarako zehaztutako baldintza eta epeen arabera (<https://www.ehu.eus/eu/web/hefa/haur-hezkuntza-eta-lehen-hezkuntza-graduak>).

3.3. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak praktiketako prestakuntza zentro gisa onartuak izan diren ikastetxe eta erakunde zerrendaren ebazpena argitaratuko du eta Fakultateari titulu bakoitzak ikasleen espezializazio eskariei erantzuteko nahikoa plaza emango dizkio.

Ikasleari plaza esleitzeko prozedura Practicum AzpiBatzordeak adostutako irizpideen arabera egingo da:

- Ikasleak hiru Practicum egin beharko ditu bi edo hiru ikastetxe desberdinetan, eta baldintza hori betetzea ikaslearen erantzukizuna izango da.
- PI, PII eta PIIIaren hautaketa irizpide bakarra akademikoa da. Hau da, ikasleak bere espedienteko notaren eta gainditutako kredituen arabera hautatu ahalko du ikastetxea.
- Haur Hezkuntzako Graduan, ikasle guztiak gauzatuko dute PIIIa 2. zikloan.

Behin ikastetxea esleituta, ikasleak praktikak modu egokian garatzeko eta, kasuan kasu, bere esku dituen datuak babesteko konpromisoa hartuko du.

OHARRA: EJren 33/2018 Dekretuak berekin ekar ditzakeen aldaketek prozedura honi eta 3.4. puntuaren agertzen direnei eragin diezaiekete.

3.4. IKASLEEN IKASTETXE HAUTAKETA

Lehen aipatu bezala, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak praktiketako prestakuntza zentro gisa onartuak izan diren ikastetxe eta erakunde zerrendaren ebazpena argitaratuko du eta EJK berak nahikoa plaza emango dizkio Fakultateari titulu bakoitzak ikasleen espezializazio eskariei erantzuteko.

Ikasleek Gipuzkoan onarturiko praktiketako prestakuntza zentroyen eskaintzan hautaketa egingo dute, bere titulazioaren arabera, EJK Fakultateari esleitu dion plaza eskaintza zerrendatik abiatuta.

Practicum Dekanordetzak eskaintza argitaratuko du eta ikasleek plaza eskaera egiteko egutegia finkatu, eta HEFAren webguneko Practicum atalean argitaratuko du.

3.5. BALIOZKOTZEAK

Egonaldiak bakarrik baliozkotzen diren kasuetan, ikasleak Practicumari dagozkion bestelako lan guztiak egitera behartuta daude, baita irakasgaiak eskatzen dituen bilera, tutoretza eta abar egitera ere.

Taula 2. Baliozkotzeak

Irakasgaia	Irakasgai osoa	Egonaldia bakarrik
Practicum I	<p>HH eta LH diplomatua edo graduatua bada.</p> <hr/> <p>Azkeneko hiru urteetan, gutxienez, urte erdiz lanaldi osoko arduraldian, edo urtebetez lanaldi erdiko arduraldian, Haur Hezkuntza/Lehen Hezkuntza aritu bada.</p> <hr/> <p>Plan zaharretako Practicumak eginak izatea.</p>	<p>Practicumari dagozkion denboraldian Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza lanaldi osoko arduraldian jarduten bada.</p>
Practicum II	<p>HH eta LH ikasketetan diplomatua edo graduatua bada.</p> <hr/> <p>Plan zaharretako Practicumak eginak izatea.</p>	<p>Praktikei dagozkien denboraldian ikasleak lanaldi osoz matrikulatuta dagoen Graduan lan egiten bada.</p>
Practicum III		<p>Praktika denboraldian ikastetxe batean lanean aritzea ikasten ari den titulazioaren eta, hala dagokionean, Minorraren alorrean.</p> <p>Edonola ere, ikasleak irakasgaiari dagozkion gainerako baldintzak bete beharko ditu.</p>

3.6. KASU BEREZIETARAKO IRIZPIDEAK

Arau orokor gisa, Practicuma enborreko irakasgai da eta, beraz, errespetatu beharreko egutegi, ordutegi eta ordu kopurua ditu zehaztuak.

Ikasle batek ezin badu Practicuma ezarrita dagoen moduan bete, bere egoera “Kasu Berezi” bat izan daiteke:

1. Ikasketak eta lana batera egin behar duten ikasleak.¹
2. Erditzeko, adopzioko edo harrerako kasuetan eta hiru urtetik beherako seme-alaben ardura dituzten ikasleen kasuan.²
3. Mendeko senide baten zaintzaile direla egiaztatzen duten ikasleak.³
4. Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako UPV/EHUko ikasleak.⁴
5. Mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleak.
6. Garapenerako Lankidetzeta programetan parte hartzen duten ikasleak.
7. Beste egoera batzuetan dauden ikasleak:
 - a. Gaixotasunak, istripuak
 - b. Arazo administratiboak
 - c. Aldez aurretik ikusi ezin daitezkeenak

Kasu edo salbuespeneko egoera horietako batean egongo den ikasleak eskaera formala egin beharko du bere egoera “Kasu Berezi” bezala kontuan har dadin. Ez da onartuko ikaslearen eta UPV/EHUko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastetxearen arteko inolako akordiorik.

Egoera horien aurrean ikasleak egin ditzakeen **eskaera motak**:

1. Praktikaldiaren egutegia aldatzea
2. Praktikaldiaren ordutegia aldatzea
3. Praktiken zentro aldaketa

¹ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 10. artikulua arabera: https://www.ehu.es/documents/3026289/3106907/UPVEHUko_Ikasleen_Arautegia.pdf.

² UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 8. artikulua arabera.

³ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 9. artikulua arabera.

⁴ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 6. artikulua arabera.

Prozedura honakoa izango da:

1. Ikasleak kontenplazten diren Kasu Berezien aukerak eta eskaera motak aztertuko ditu eta bere egoerari egokitzen zaiona identifikatuko du.
2. Ikasleak web orriko Practicum atalean dagoen inprimakia beteko du.
3. Ikasleak eskaera berezia arrazoitzen duten agiriak bilduko ditu.
4. Ikasleak eskaera egingo du praktiketako kronograman jarritako epean, eskaera inprimakia beteta eta agiriez lagunduta.
5. Practicum AzpiBatzordeak eskaera aztertu eta onartzeko edo ez onartzeko erabakia hartuko du.
6. Ebazpena web orriko Practicum atalean argitaratuko da.
7. Practicum Batzordearen ebazpena aldekoa bada, praktiketako zentroari komunikatuko zaio eta zentroak egoera edo Kasu Bereziaren baldintzak onartzen baldin baditu, ikasleari eta bere unibertsitateko tutoreari eta kanpoko tutoreari komunikatuko zaie. Zentroak baldintza bereziak onartzen ez baditu, beste zentro bat bilatu beharko da.
8. Practicum Batzordearen ebazpena kontrakoa bada, ikasleak Practicum arrunta egin beharko du eta ez du inolako eskubiderik izango praktikaldiko baldintza orokorrak ez betetzeko.
9. Egutegi akademikoan aldaketa eragiten duten eta beste irakasgai batzuei eragiten dieten Kasu Bereziatako eskaera guztietan erantzukizun osoa ikaslearena izango da.

OHARRAK:

- Practicumean data aldaketa onartua izatea ez da baimen bat izango matrikulatuta egon litekeen beste irakasgai batzuetara huts egiteko.
- Practicumean data aldaketa ez da baimen bat izango matrikulatuta egon litekeen beste irakasgai batzuetara huts egiteko.
- Egonaldiaren egutegia edo ordutegia aldatzea eskatuz gero, ikasleak gutxienez asteen 15 ordu egin beharko lituzke baina ordu gehiagoko proposamenak egin ditzake, egonaldiaren amaiera epea arintze aldera.

Egonaldia honako modu honetan luza daiteke, adibidez:

IRAKASGAIA	EGONALDIA	ASTE KOPURUA
Practicum I	goizez bakarrik	10 aste
Practicum II	goizez bakarrik	14 aste
Practicum III	goizez bakarrik	24 aste

- Practicumari dagokion praktika-egonaldia lanaldi erdiz egiteko, eskatutako praktikaldiari dagokion hasiera data bera izango du.
- Edozein kasutan, gutxienez lanaldiaren bi goiz beteko dituela bermatuko da.
- Kasu guztietan, praktiken denboraldia laburtu ahalko da, goizei arratsalde batzuk gehituta.
- Ez dira astean 15 ordu baino gutxiagoko praktikak onartuko.
- Ordutegia modu ordenatu eta logikoan antolatuko da, antolaketa eta pedagogia ikuspuntutik.
- Ikastetxeak ezarritako etenaldietan soilik irten edo sartu ahal izango da eskolan.
- **Salbuespenak:**
 - Dokumentazioarekin justifikatutako kausa larriengatik praktiketako egonaldia urtebetez luzatzeko eskatu ahal izango da; horretarako, ordea, nahitaezkoa izango da berriro matrikulatzea.
 - Praktiketako ikastetxean egonaldia bakarrik baliozkotzen den kasuetan, luzapen hori eskatu den ikasturterako bakarrik izango da baliozkoa. Salbuespeneko ikasle batek eskatutako lanak egin ezean edo gainditu ezean, hurrengo ikasturtean egonaldia egin beharko du praktiketako ikastetxean edo, hala badagokio, salbuespen berri bat eskatu beharko du.

3.7. PRACTICUMEKO PARTAIDEEN EGINKIZUNAK

3.7.1. Ikastetxeko koordinatzailea

Practicumaren koordinatzaileak izango du praktiketan dauden ikasleen heziketa jarduerak koordinatzeko ardura bere hezkuntza zentroan eta, halaber, bere lana izango da Unibertsitatearekin egokiak diren harremanak egitea.

Aitortutako zentroko zuzendariak, bertako ordezkari gorena den aldetik, hezkuntza-zentro horren barruan Practicuma egiten ari diren ikasleen zuzeneko erreferentzia izango diren koordinatzaile eta maisu-maistra tutoreak izendatuko ditu. Izendapen hori, ahal izanez gero, Practicumean dauden ikasleen koordinaziorako edo tutoretzarako lanak egitea eskatzen duten ikastetxeko irakasleen artean egingo da.

Eginkizunak:

- Practicuma egiten ari diren ikasleei hezkuntza-zentroan egin beharreko egonaldia erraztea eta beharrezkoa duten informazioa eskaintzea.
- Hezkuntza-zentroko erreferentzia izatea unibertsitatearekin dituzten harremanetan, eta Practicumaren unibertsitate arduradunekin elkarlanean jardutea, bi erakunde horietan egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Maisu-maistra tutore bakoitzak Practicuma egiten ari diren ikasleen heziketa prozesuan duen eginkizuna zehaztea.
- Practicumeko ikasleen espazioak eta ordutegiak antolatzea.
- Practicuma egiten ari diren ikasleen maisu-maistra tutoreekin egin beharreko bileren egutegia prestatzea.
- Praktikei hasiera emateko prozesuan Practicumeko ikasleei harrera egin eta laguntza ematea.

- Practicumeko ikasleei Zentroaren Hezkuntza Proiektua, horren kudeaketa eta antolamendua azaltzea, eta beharrezkoak diren txosten guztiak eskaintzea. Ikastetxe hori gizarte eta hezkuntza arloko zein testuingurutan kokatua dagoen azaltzea.
- Practicumeko ikasleek ikastetxearen bizitza instituzionalean parte har dezatela erraztea: klaustroa, bilerak, tutoretzak...

3.7.2. Ikastetxeko instruktorea

Practicumaren tutoretza lanak hauxe eskatzen du:

- Ikastetxeko Practicumaren koordinatzailearekin eta Practicumaren unibertsitate arduradunekin elkarlanean aritzea, bi erakunde horien artean egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Ikasturtean zehar finkatzen diren epealdietan praktiketako ikasleei harrera egitea.
- Praktiketari ari diren ikasleei praktikak egingo dituzten taldearen edo eskola unitatearen ezaugarriei buruzko orientabideak ematea, baita Zentroko Ikasketa Proiektuari buruz eta talde edo hezkuntza-unitatearen testuinguruari buruz ere.
- Instruktoarak, EHUko tutorearekin batera, informazio eta orientazio egokia eskaini beharko die ikasleei, prozesuan zehar, gaitasunen eskuratze mailari buruz eta haien ikaskuntza prozesuan iradokitako hobekuntzei buruz, ebaluazioak prestakuntza izaera eduki dezan.
- Practicuma egin bitartean ikasle bakoitzari laguntza eta aholkuak ematea, eta Practicumean egin beharreko eginkizunetan autonomia eta erantzukizun sena sustatzea.
- Bere tutoretzapean dauden Practicumeko ikasleek burutu behar dituzten izaera orokorreko heziketa ekintzak gainbegiratzea.
- Praktiketari dauden ikasleek gainerako irakasleekin koordinatzeko lanetan parte har dezatela sustatzea eta laguntzea, baita familiekin dituzten harremanetan ere, ahal den neurrian.
- Ikasleentzako heziketa ekintza bereziak proposatzea, burutu behar duten Practicum plan orokorraren barruan.

- Practicumaren heziketa-prozesua ebaluatzea eta hau txosten batean biltzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz. Txosten hori EHUko tutoreari helaraziko dio eta ikasleari ere helaraziko zaio, tutorearen bidez.
- Ikastetxeak dauzkan baliabideak Practicumeko ikaslearen esku jartzea, agintzen dizkioten heziketa ekintzak presta ditzan.
- Practicumeko ikasleen konpetentziak ebaluatzeko azken balioespena egitea eta, balioespena negatiboa denean, horren argudioak zehaztea instruktorearen ebaluazio orrian.
- Practicuma egin bitartean izaten diren gertaerak, gertatu ahala, unibertsitateko tutoreari eta ikastetxeko koordinatzaileari jakinaraztea.
- Prozesuan zehar practicuma hobetzeko egoki iruditzen zaizkion iradokizunak eta ekarpenak egitea.

3.7.3. Unibertsitateko Practicum Ieko koordinatzailea

Practicumaren koordinazio lanak hauxe eskatzen du:

- Practicumeko AzpiBatzorde kidea da.
- Koordinazio eta kudeaketa akademikoaren arduraduna da, tutorearekin batera.
- Gidako zereginen planifikazioaz arduratzen da, baita praktikaldiko koordinazioaz eta Practicum Ieko ebaluazio eta hobekuntza proposamen orokorrak egiteaz ere.
- Ikasleen esleipenaz arduratzen da.
- Gidak eguneratzen ditu.
- Batzordearen laguntzaz, koordinatzaileak tutoreak eta instruktoreak egin beharreko laguntza eta jarraipen prozesua zehaztuko du; bertan, agenteen arteko (ikaslea, tutorea, instruktorea) komunikazio uneak espezifikatuko dira, baita ikasgaiari dagozkion zeregin nagusiak entregatzeko data garrantzitsuak ere, laguntza eta jarraipen prozesua egoki gara dadin.
- Tutore eta ikasleentzako behar diren informazio bilerak antolatzen ditu eta informazio eta formazio beharrak identifikatu eta batzordera eramaten ditu.

3.7.4. Unibertsitateko tutorea

Practicumaren tutoretza lanak hauxe eskatzen du:

- Talde batez arduratzea eta horren irakaskuntza lana bere gain hartzea HH eta LH Graduetako ikasketen enborreko irakasgai gisa.
- Practicum Dekanordetzak eta Titulazioko Koordinatzaileak deitutako bileretara joatea.
- Ikasleei orientabideak ematea, ikasgeletako jardunaren irakaskuntza-epe garrantzitsu honetan argi ikus dezaten teoriaren eta praktikaren arteko lotura.
- Planteamendu teorikoei jarraipena ematen ahalegintzea ikasgeletan aplikatu daitezten, betiere ikastetxeko tutorearekin lankidetzat estu batetik abiatuta.
- Praktiketari ari diren ikasleekin bilerak antolatzea. Lehenengoa, praktikak hasi baino lehenago; azkena, praktikak amaituta edo amaitzear direnean; eta tartean, beharrezkoak ikusten diren bakarkako edo taldeko bilerak.
- Ikasleei Practicum programa erraztea.
- Bere ardurapean jarritako praktiketako ikasleei arreta egin eta laguntzea, ikastetxeetan burutzen duten lana gidatzea eta beharrezkoak dituzten orientabideak eskaintzea.
- Harremanetan jartzea instruktorearekin eta ikaslearekin, prestakuntza proiektuaren garapeneren eboluzioa ezagutzeko eta, hala behar bada, hobekuntza neurriak ezartzeko.
- Bilera eta mintegietako egutegia finkatzea praktika-aldiari ekin baino lehen.
- Praktiketako konpetentziak lortzeko ikasleei orientabideak ematea.
- Kanpoko praktika akademikoen prestakuntza proiektua egitea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazio eta datuekiko konfidentzialtasunaren garrantziaz oharraraztea ikaslea.
- Practicumaren heziketa prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz.
- Tutoreak, instruktorearen laguntzaz, informazio eta orientazio egokia eskaini beharko die ikasleei gaitasunen eskuratze mailari buruz eta haien ikaskuntza prozesuan iradokitako hobekuntzei buruz, ebaluazioak prestakuntza izaera eduki dezan.

- Ikasleak egindako lanak, aitortutako zentroko maisu-maistra tutore bakoitzak egindako ebaluaketa eta praktiken jarraipenean egindako behaketa partehartzaileak kontuan izanik, Practicum kalifikatzea.
- Practicum hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.
- Ikastetxeetako zuzendariekin edo koordinatzaileekin eta bere ikasleen praktiketako tutorearekin harremanetan egotea. Hiru aldiz jarriko da harremanetan erakundeko instruktorearekin, gutxienez. Lehendabizikoa, praktiken hasieran; bigarrena, praktiken zikloaren erdialdean; eta, azkenekoa, praktikak amaitu baino lehen.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazio eta datuekiko konfidentziasunaren garrantziaz oharraraztea ikasleari.

3.7.5. Ikasleak

Practicumak haxe eskatzen du:

- Practicumaren fase desberdinak ezagutzea eta horietan parte hartzea.
- Bai aurretiko prestakuntzan eta bai unibertsitateko tutoreak proposatutako mintegietan parte hartzea.
- Ikastetxeko asistentziarako eta puntualtasunerako baldintzak betetzea eta horien araudia errespetatzea.
- Ikastetxeko tutorearekin eta unibertsitateko tutorearekin elkarlanean aritzea.
- Practicumaren programa eta horren garapena ezagutzea.
- Hezkuntza komunitateko eragile guztiekin errespetuzko harremanak finkatzea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazioaren eta datuen babesa gordetzea.
- Unibertsitateko tutoreak zehaztutako ildoak jarraiki, ebaluazio jarduerak burutzea.
- Praktikak egingo diren enpresa edo erakunde publiko nahiz pribatuarekin edo unibertsitatearekin kontratu bidezko harremanik ez edukitzea, non eta praktikez arduratzen den dekanordeak edo zuzendariordeak berariaz baimentzen ez duen.

4. PRACTICUM IEKO PROGRAMA

4.1. HELBURUAK

Haur nahiz Lehen Hezkuntzako irakasle graduatuek behar bezala ezagutu eta menderatu behar dituzte ikastetxeko lanean eragiten duten curriculum diseinuetan jasotako esparru guztiak, betiere kompetentzien naturaren eta konplexutasun mailaren arteko elkarrekotasun egokia finkatuz; horretarako, prozesu kognitiboak eta ikasleen garapen maila hartuko dira kontuan, uneoro haurren ikaskuntza autonomoa sustatzen saiatuz.

Horretarako beharrezkoa izango da:

1. Esperientzia esparruetan aplikatutako ezagutza pedagogikoak ezagutzea eta ulertzea.
2. Lankideekin taldean lan egitea.
3. Gizarte testuinguruaren azterketa kritikoa egiteko gai izatea.
4. Hezkuntza ikerketatik sortutako ikuspegiak aztertzea eta eztabaidatzea.
5. Koordinazio funtzioak betetzea.

4.2. KONPETENTZIAK

Hezkuntza Graduak maisu-maistra gisa lan egiteko prestatzen du ikaslea, Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 eta ECI/3857/2007 ministerio-aginduek finkatzen dituzten betekizunen arabera, bertan jasotzen baitira Practicumaren bidez bereganatu beharreko kompetentziak:

Taula 3. Practicum Ieko kompetentziak eta deskriptoreak

PRACTICUMEKO Ieko KONPETENTZIAK	DESKRIPTOREAK
Ikasgelaren, ikastetxearen eta bere kudeaketaren inguruko ezagutza praktikoa izatea.	HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN EZAGUTZA PRAKTIKOA

Ikasgelako eta ikastetxeko elkarrekintza eta komunikazio prozedurak behatzea, bertan giro egokia bultzatzeko.	KOMUNIZAZIORAKO eta ELKARREKINTZARAKO GIRO EGOKIA
Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko aldagai nagusiak ezagutzea.	IKASKUNTZAREN ALDAGAIK

4.3. IKASKUNTZA EMAITZAK

Konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzak, ikaskuntzaren prozesuak eta emaitzak eskatzen eta baloratzen dituen ebaluazioa behar du. Kasu honetan, ez da jarduera multzo bat, elkarren artean loturik dauden hainbat ikuspegi baizik, sinergian, arestian definitutako konpetentzia osatzeaz gain, hura lortzea ahalbidetzen dutenak. Konpetentzietatik zuzenean eratortzen diren “ikaskuntza emaitza” deiturikoei buruz ari gara, horiek are gehiago zehazten dituzten alderdiak baitira.

Dena den, eta ikaskuntza emaitzek zehaztasun maila garrantzitsua izan arren, egokia litzateke ikaskuntza emaitzen esanahia hobeto mugatzen lagunduko duten ebaluazio irizpide batzuk zerrendatzea. Horiek dira ebaluaziorako erabiltzen diren adierazle zehatzak, ikaskuntza emaitzak bereganatzeko erabiltzen direnak. Adierazle hauek baloratu ahal izateko hainbat ebidentzia proposatzen dira. Prozesu hori guztia ondoko taulan jasotzen da:

Taula 4. Konpetentziak, I.E., E.A.k eta ebidentziak

KONPETENTZIAK (deskriptoreak)	IKASKUNTZA EMAITZAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	AUKERAZKO EBIDENTZIAK
HEZKUNTZA	Ikastetxearen antolaketa, hezkuntza ildo nagusiak eta ingurua ezagutzea	Ikastetxearen antolakuntza, instalazioak eta zerbitzuak behatu eta aztertzen ditu..	MEP ⁵
KOMUNITATEAREN			Mintegia/Foroa ITEO ⁶
EZAGUTZA	Ikastetxearen inguru soziokulturala eta linguistikoa behatzeko eta baloratzeko gaitasuna azaltzen du.	Ikastetxearen inguru soziokulturala eta linguistikoa behatzeko eta baloratzeko gaitasuna azaltzen du.	MEP
PRAKTIKOA			Mintegia/Foroa ITEO

⁵ MEP: Memoria/Ebidentzia karpeta/Portfolio.

⁶ ITEO: Ikastetxeko Tutorearen Ebidentzia Orria.

		Ikastetxearen hezkuntza proiektu ezberdinak ezagutu eta islatzen ditu.	MEP ITEO
		Ikasketa prozedurak eta estrategia metodologikoak behatzeko eta ebaluatzeko teknikak erabiltzen ditu..	MEP ITEO Mintegia/Foroa
		Aniztasunaren inguruko datu esanguratsuak behatzen eta kontuan hartzen ditu.	Egunerokoa MEP ITEO
	Informazioa aztertzea eta interpretatzea	Behatutako eta bizi izandako hezkuntza jardueren inguruan kritikoki hausnartzen du egoera zehatzetan ezaguera teorikoak erabiliz.	Mintegi/Foroa Egunerokoa MEP ITEO
		Erdietsitako ezagutza teorikoak ikasgelako errealitatearekin erlazionatzen ditu.	Mintegi/Foroa MEP
KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA	Komunikazio estrategiak modu egokian erabiltzea	Komunikazioaren alderdi formalak zaintzen ditu.	MEP Egunerokoa
		Hizkuntza, idatziz zein ahoz, zuzentasunez eta egoki erabiltzen du egoera guztietan.	MEP Egunerokoa ITEO Foroa
	Elkarrekintza ezberdinetan jarrera egokia azaltzea	Jarrera egokia azaltzen du ikasle zein irakasleekin dituen elkarrekintza egoera ezberdinetan.	ITEO
		Ikasgelako aniztasunaz eta honen lanketaz jabetu eta era egokian jokatu du.	Egunerokoa MEP ITEO
		Talde lanean aritzen badaki: besteen iritziaik errespetatzen ditu, proposamen berritzaileak egiten ditu...	Mintegi/Foroa
IKASKUNTZAREN ALDAGAIK	Practicumaren prozesuan zehar jarrera egokia azaltzea	Ekintzetan parte hartzen du: ikasgela, mintegiak, bilerak... bere tutoreari lagunduz eta parte hartuz.	ITEO Mintegi/Foroa
		Autonomoa eta sortzailea da eta egoerak eskatzen duenean erabakiak hartzeko jakinmina eta iniziatiba erakusten ditu.	ITEO

	Praktika-aldian garatutako kompetentziak eta trebetasunak islatzen ditu, baita topatutako oztopoak ere.	Mintegi/Foroa MEP
Ikasgelaren errealitatearen aldagaiak eta estrategia metodologikoak behatzea eta ezagutzea	Denboraren eta espazioaren antolamendua ezagutzen eta azaltzen du eta ikasgelan duen funtzionaltasunaz jabetzen da.	MEP ITEO
	Ikastetxeko eta gelako baliabide didaktikoak ezagutzen eta erabiltzen ditu.	MEP ITEO
	Ikasleek eginkizun guztietan agertzen dituzten gaitasun eta zailtasunak identifikatzen eta aztertzen ditu.	Egunerokoa MEP Mintegi/Foroa ITEO

4.4. GAITEGIA

1. gaia. Eskolako errealitatea

- Erreferentziazko lege esparrua. Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculum.
- Zentroak ingurune fisikoarekin, sozio-ekonomikoarekin eta kulturalarekin duen harremana.
- Hezkuntza zentroaren eta ikasgelaren egitura eta antolamendua.
- Ikastetxeko Proiektuak.
- Ikastetxeetan eskuragarri dauden dokumentazio iturriak.

2. gaia. Ikasgelako elkarreragin prozesuak

- Ikasgelan irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuan esku hartzen duten aldagaiak.
- Aniztasuna: generoa, kulturen arteko harremanak...
- Informazioaren analisisa eta interpretazioa.

3. gaia. Kanpoko hezkuntza zerbitzuak

- Berritzeguneak, talde multiprofesionalak, baliabideak eta laguntza pertsonalak.

4.5. EBALUAZIOA

Bi agentek ebaluatuko dute praktikak egiten ari den ikaslea: batetik, unibertsitateko tutoreak eta, bestetik, Practicuma egin den ikastetxeko tutoreak. Horietako bakoitzak bere protagonismoa izango du ikaslearen azken kalifikazioan: unibertsitateko tutorearen ebaluazioak azken notaren % 70a balioko du. Gainerako % 30a ikastetxeko tutoreak baloratuko du.

Aldeko ebaluazioa duten praktikak ikaslearen TGEN jasota geratuko dira. Praktiken kontrako balorazioaren aurrean, ikasle bakoitzak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du bere ikastegiko zuzendaritzan edo dekanotzan, 10 eguneko epean.

Irakasgaiaren beraren konpetentziak lortzea da Practicumaren helburua eta, horrenbestez, bi agenteek alde aurretik zehaztutako ebaluazio irizpideak dituzte.

Horrez gain, honako aldaera hauek kontuan hartzea komeni da:

- Azken nota eskuratzeko batez bestekoa egin aurretik, beharrezkoa da alde bakoitza gaindituta izatea, gutxienez, 5eko notarekin.
- Egonaldia edo lana, bietako bat, gainditzeko ez badu, azken nota gutxiegi izango da 1. deialdian. Egonaldia bada gainditu ez duena, ezohiko deialdian ez aurkeztua izango du.
- Ezohiko deialdian ere gainditzeko ez badu, Practicum osoa errepikatu beharko du hurrengo ikasturtean.
 - Praktiketako egonaldia bakarrik gaindituz gero, nota ez da hurrengo ikasturteetarako gordeko; hau da, matrikulatu eta praktiketako egonaldia berriro egin behar du.

Bestalde, bertaratzeari dagokionean, baldintza hauek eskatuko dira:

- Ikastetxeko ordu guztietan bertaratzea. Arrazoitu gabe hiru goiz edo arratsalde huts egitea nahikoa izango da egonaldian suspentsoa jartzeko.

- Unibertsitateko tutoreak antolatutako bilera eta bestelako bertaratzeetan % 80an parte hartzea ere ezinbestekoa izango da.
- Ikasleak kontuan izan behar du hiru Practicumetan gutxienez bi ikastetxetan aritzea eskatuko zaiola.

Jarraian xedatzen diren ebaluazio irizpideak ikasleek beren praktika-aldian lortu behar dituzten konpetentziekin daude lotuak eta, beraz, bi tutoreek horiek hartuko dituzte kontuan ikasleak ebaluatzeko orduan.

5. ERANSKINAK

5.1. ERANSKIN I: EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO TUTOREA (PRACTICUM I)

IKASTETXEKO TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK:

.....

IKASTETXEA:

IKASLEA:

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazio irizpideak ikasleek lortu behar dituzten konpetentziekin lotuta daude. Lortu nahi dugun xedea, hain zuzen ere, ikastetxeko tutorearen ebaluazioa errazteko balio izatea da eta, beraz, orientabide gisa hartu behar dira. Eskuineko zutabearen irizpideen nota edo balioespena islatu daiteke.

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
HEZKUNTZA KOMUNITATEA- REN EZAGUTZA PRAKTIKOA	Ikastetxearen antolakuntza, instalazioak eta zerbitzuak behatu eta aztertzen ditu.
	Ikastetxearen inguru soziokulturala, linguistikoa... behatzeko eta baloratzeko gaitasunak erakusten ditu.
	Ikastetxearen hezkuntza proiektu ezberdinak ezagutzen ditu.
	Aniztasunaren inguruko datu esanguratsuak behatzen eta kontuan hartzen ditu.
	BALORAZIO OROKORRA (1-10)

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA	Hizkuntza, idatziz zein ahoz, zuzentasunez eta egoki erabiltzen du egoera guztietan.
	Komunikazio estrategia egokiak erabiltzen ditu ikasle zein irakasleekin dituen elkarrekintza egoera ezberdinetan.
	Ikasgelako aniztasunaz eta honen lanketaz jabetu da eta era egokian jokatu du.

	BALORAZIO OROKORRA (1-10)	
--	----------------------------------	--

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	
IKASKUNTZAREN ALDAGAIK	Ekintzetan parte hartzen du: ikasgela, mintegiak, bilerak... bere tutoreari lagunduz eta ardurak hartuz.	
	Autonoma eta sortzailea da eta egoerak eskatzen duenean erabakiak hartzeko jakin-mina eta iniziatiba erakusten ditu.	
	Denboraren eta espazioaren antolamendua ezagutzen du eta ikasgelan duen funtzionaltasunaz jabetu da.	
	Estrategia metodologikoak behatu eta ezagutzen ditu.	
	Ikastetxeko eta gelako baliabide material eta didaktikoak ezagutzen eta erabiltzen badaki.	
	Ikasleek eginkizun guztietan agertu dituzten gaitasun eta zailtasunak identifikatzen eta aztertzen ditu.	
	BALORAZIO OROKORRA (1-10)	

OHARRAK eta ZEHAZTAPENAK: (behar adina luzatu dokumentua)

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

KALIFIKAZIOA (1-10):

SINADURA:

.....(e)n, 202.....(e)koren (e)(a)n

5.2. ERANSKIN II: EBALUAZIO ORRIA. UNIBERTSITATEKO TUTOREA (PRACTICUM I)

IKASTETXEKO TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK:

.....

IKASTETXEA: Ikasturtea:.....

IKASLEA: Gradua:.....

Hemen azaltzen diren ebaluazio irizpideak ikasleak lortu beharreko kompetentziei loturik daude. Orientabide edo lagungarri moduan hartu behar dira, ebaluazioa errazteko tresna gisa.

UNIBERTSITATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA (% 70)

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN EZAGUTZA PRAKTIKOA	Ikastetxearen antolakuntza, instalazioak eta zerbitzuak behatu eta aztertzen ditu
	Ikastetxearen inguru soziokulturala eta linguistikoa behatzeko eta baloratzeko gaitasuna azaltzen du
	Ikasketa prozedurak eta estrategia metodologikoak aztertu eta ebaluatzen ditu
	Ikastetxearen proiektu ezberdinak ezagutzen ditu
	Aniztasunaren inguruko datu esanguratsuak behatzen eta kontuan hartzen ditu
	BALORAZIO OROKORRA (1-10):

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA	Hizkuntza, idatziz zein ahoz, zuzentasunez eta egoki erabiltzen du egoera guztietan
	Ikasgelako aniztasunaz eta honen lanketaz jabetu eta era egokian jokatu du
	BALORAZIO OROKORRA (1-10):

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	
IKASKUNTZAREN ALDAGAIK	Ekintzetan parte hartzen du: foroak, mintegiak, bilerak...	
	Denboraren eta espazioaren antolamendua ezagutzen eta azaltzen du eta ikasgelan duen funtzionaltasunaz jabetzen da	
	Ikastetxeko eta gelako baliabide didaktikoak ezagutzen eta erabiltzen ditu	
	Ikasleek eginkizun guztietan agertzen dituzten gaitasun eta zailtasunak identifikatzen eta aztertzen ditu	
	Praktika-aldian garatutako konpetentziak eta trebetasunak islatzen ditu, baita topatutako oztopoak ere	
	BALORAZIO OROKORRA (1-10):	

IKASTETXEKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA (% 30)

KONPETENTZIAK	HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN EZAGUTZA PRAKTIKOA (1-10):	
	KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA (1-10):	
	IKASKUNTZAREN ALDAGAIK (1-10):	
	BALORAZIO OROKORRA (1-10):	

OHARRAK eta ZEHAZTAPENAK: (behar adina luzatu dokumentua)

.....

KALIFIKAZIOA (1-10):

SINADURA:

.....(e)n, 202.....(e)koren (e)(a)n